

IRAGARKIA

177. ALDIZKARIA - 2021eko uztailaren 29a - BEREZIA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.3. Foru Aginduak

26/2021 FORU AGINDUA, uztailaren 27koa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez luzatu eta aldatzen baita Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Agindua. Horren bidez, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz.

Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren bidez, berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz.

Hori horrela, geroago, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 19ko 24/2021 Foru Aginduaren bidez aldatu zen 22/2021 Foru Agindua (Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izandako bilakaeraren ondorioz).

Aipatu 24/2021 Foru Aginduan mantendu egiten zen taberna bereziaren, ikuskizunetarako kafetegiaren, diskotekaren eta dantzalekuaren lizentzia duten establezimenduak irekitzeko ordutegiaren muga, 1:00ean itxi beharko baitute. Horrez gain, mugatu –eta ez galarazi– egiten ziren gaueko joan-etorriak, ordu horretatik goizeko 06:00etara, arrisku oso handiko mailan zeuden udalerrietan, jarduketak koordinatzeko Osasun Ministerioaren ekainaren 2ko dokumentuaren arabera, (hau da, intzidentzia-tasa 250 kasutik gorakoa bazen 100.000 biztanleko 14 egunean, eta 125 kasutik gorakoa 7 egunean). Orobat, jende pilaketak saihesteko neurri berriak ere ezartzen ziren, batez ere prebentzio neurriak lasaitzen diren ekitaldietan, hala nola kalejiretan, (Nafarroako udalerrietan arrisku egoerak eta kutsatzeak eragin baitituzte), herri bazkarietan eta aire zabaleko zezen-ikuskizunetan (zezen-plazetatik kanpo egiten direnetan). Azkenik, neurri sinergiko horien multzoa ixteko, eremu publikoetan bildu daitekeen pertsona kopurua ere mugatzen zen: 10 lagun gehienez. Salbuespena izaten zen, ohi den bezala, hamar kidetik gorako bizikidetzaren unitateen kasua, baldin eta aldatzen den foru aginduan jasotako

mugen arabera baimenduta bazeuden.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 20ko autoaren bidez, 24/2021 Foru Aginduan hartu ziren neurriak baimendu ziren, 8. puntukoak izan ezik, "Pertsonak gauez zirkulatzeko duten askatasuna mugatzea Nafarroako Foru Komunitatean". Gauez zirkulatzeko mugari dagokionez, autoak esaten du ez direla identifikatzen neurriak zer udalari eraginen zion; horren ondorioz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak ezin du baimena eman muga hori jartzeko.

Osasuneko kontseilariaren uztailaren 22ko 25/2021 Foru Aginduaren bidez, berriz aldatu zen Osasuneko kontseilariaren 22/2021 Foru Agindua, pertsonen gaueko mugikortasuna mugatu baitzen egun jakin batzuetarako. Beharrezkotzat jo zen pertsonen gaueko mugikortasuna mugatzea (ezen ez galaraztea) egun jakin batzuetan (asteburuak, jaiegunak eta herriko jaiak eginen ziratekeen egunak). Mugatze horrek eragin behar die 15 eta 7 egunean arrisku gorriko intzidentzia metatuaren balioak dituzten udalerriei (arrisku gorria edo oso handia Osasun Ministerioaren jarduketa koordinatuen dokumentuan).

Ahalik eta eskubide-mugaketa zehatzena egin nahi izan da, haren helburua baita kutsatzeak murriztea jende-pilaketarik handienak, jendearen arteko kontakturik gehienak eta osasun arloko prebentzio neurrien laxatzerik handiena gertatzen diren egunetan, azken hilabete honetako esperientzia kontuan hartuta, eta saio bat eginez gizarte jarduera eta herritarren oinarrizko eskubideak ahalik eta gutxien mugatzeko, bat etorrarazteko zuhurtasun printzipioa eta proportzionaltasun printzipioa, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorraren 27.3 artikuluari men eginez.

Foru agindu hori osorik baimendu zen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren uztailaren 23ko 108/2021 Autoaren bidez.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txostenak adierazten du, uztailaren 22ko azken txostenari dagokionez, egoera antzekoa dela. 14 eta 7 egunetan metatutako intzidentzia 1006,07 eta 458 kasu berrikoa da 100.000 biztanleko, hurrenez hurren, eta joera beheranzkoa da pixka bat, baina arrisku mailak muturrekoak edo oso handiak dira oraindik. 12-29 urtekoen intzidentziak beste adin tarteetara hedatzen ari dira. Orain, intentsitate handiko zirkulazio epidemikoa da egoera, eta joera egonkortu bada ere, uztailaren hasieran bat-batean igo ondoren, eta beherantz hasi bada ere pixka bat, goi-ordoki batean jarraitzen du, 400 kasu baino gehiago baitira egunero.

Positibotasuna handia da oraindik, batez ere antigenoen test lasterretan, eta horrek erakusten du nola zabaltzen ari den birusa.

Txertatzen jarraitzen ari da, eta populazio guztiaren %65,1ek du dosi bat, eta %53,6k, berriz, dosi osoa. 60-69 urtekoen artean, txertaketaren pautara osoa osatzen ari da (%77,2koa da 60-65 urtekoen artean, eta %84,8koa, berriz, 66-69 urtekoen artean). Adin-tarte horrek arrisku handia du koronabirusak eragindako infekzioa dela-eta konplikazioak izateko. Azken datuen arabera, Nafarroan COVID-19 txertoen batez besteko eraginkortasuna %61ekoa da dosi batekin, eta %82koa, berriz, pautara osoarekin, COVID-19aren kasu sintomatikoak prebenitzeko, eta COVID-19agatik ospitaleratzeak prebenitzeko, berriz, eraginkortasuna %77koa da dosi batekin, eta

%92koa da txertaketa osoarekin.

Txertoen eraginkortasuna zertxobait txikiagoa da infekzio guztiak prebenitzeko, asintomatikoak barne: %55ekoa dosi batekin, eta %72koa bi dosiekin; horregatik, txertatuek prebentzio neurriak gorde behar dituzte, infekziorik ez hartzeko eta ez kutsatzeko.

Gizarte-elkarrekintza handiak eta herritarren mugikortasunak COVID-19aren transmisio maila altuak ekarri dituzte. Intzidentzia handiagoa da txertoa hartu ez dutenen artean eta txertaketa osoa ez dutenen artean, eta Delta aldaera da horren erantzulea kasu gehienetan. Txertaketa murrizten ari da uhin epidemiko berri honen inpaktua, kasu larrien intzidentziari begiratzen badiogu. Hala ere, metatutako kasuen kopuruaren goranzko joerak pentsarazten du datozen asteetan ospitaleratzeak ugartu egingen direla. Horregatik, txertaketa osoak eraginkortasun eta inpaktu handia erakusten badu ere kasu larriak prebenitzeko, COVID-19ak zirkulatzen duen artean beharrezkoa da oraindik txertaketa beste neurri murriztaile batzuekin osatzea, birusaren transmisioa murrizteko.

Oso garrantzitsua da herritarrek prebentzio neurriak sendotzea: tarte fisikoa, maskara behar bezala erabiltzea, eskuen higiena, aireztapen egokia eta kontaktu mugatuak, bai eta txertaketaren eskaintzari erantzutea ere. Gainera, egoera epidemiologikoa gertutik behatuta, eboluzioa baloratu daiteke, hartutako neurrien ondorioak ikusi, eta neurri berriak hartu behar diren baloratu, beharrezkoa izanez gero.

Nafarroako Ospitalegunearen txostenak adierazten du ospitaleratze arruntak eta kritikoen unitateetakoak gehiago direla azken asteotan, eta bereziki azken astean. Bereziki kezkarria da ospitaleratze arruntean daudenen erdiek eta ZIUetan daudenen heren batek 40 urte baino gutxiago izatea, aldebiko neumoniek jota baitaude. Ikusteko dago nola eboluzionatuko duten paziente horiek eta ea Delta aldaerak, proportzioan, ospitaleratzea eskatzen duten kasu gehiago sortuko duen 40 urtetik beherakoen artean.

Ebaluatzeko dago Delta aldaeraren eragin asistentziala. Gaur egun, birusaren aldaera berrien agerpena da kezka nagusia; izan ere, kutsatzeko ahalmen handiagoa dute, infekzio larri gehiago eragiten dituzte, ospitaleratzea eta ZIUko zainketak behar dituztenak, eta arriskua dago txertoen eragina eta infekzioa pasatu ondoren hartutako berezko babesapaltzeko, eta, ondorioz, infekzioak eragindako hilkortasuna handitzeko.

Profesional kopuru esanguratsu batek jardun behar izan duenez txertaketan, kontaktuen aztarnari segitzen eta proba diagnostikoak egiten, eta udako oporren programazioak direla-eta, murriztu egin da ospitaleetako baliabideak (COVID-19rako nahiz COVID-19rako ez direnak) erabiltzeko prest dauden langileen kopurua. Ospitale baliabideen beharra nabarmenki handitzeak eragin azkarra izanen du COVID-19az kanpoko jardunaren programazioan edo osasun-langileen beharrezko atsedenaldian.

Delta aldaera eta sozializazio eta mugikortasun handiagoak arriskuan jartzen ari dira herritarrak beste behin, eta arriskua da osasun sistema berriz estuasunetan jartzea, txertaketak aurrera eginda ere. Azpimarratu beharra dago azken 6 hilabeteetan bi olatu izan direla, birusaren aldaera berri kutsatzaileagoen ondorioz: Alfa a, eragin asistentzial kontrastatu handiagoa izan duena, eta Delta, ebaluatzeko dagoena. Kontuan izan behar dugu agertzen den aldaera batek

eragina izan dezakeela txertoen eta alde zuzeneko infekzioaren babesaren gainean.

Gauzak horrela, prebentzio komunitarioko neurriak areagotu behar dira, batez ere arriskurik handieneko kolektibo, testuinguru eta inguruneetan, helburu hauekin: galga jartzea birusaren aldaera berriak sartzeari eta zabaltzeari, kutsatzeak ugaltzeko eta ospitaleratze arruntak zein ZIUetakoak eragiteko ahalmen handiagoa baitute; eta, denbora irabaztea txertoek, behar adinako atalasea ailegatuta, herritarrak babesteko eta halako immunitate maila bat lortzeko, kutsatzeak ugaltzea mugatzeko modukoa. Beharrezkoa da, halaber, ospitaleratzeen eragina mantsotzea, ondorioak izan baititzake COVID-19az kanpoko jardunaren planifikazioan edo osasun-langileen atsedenaldiaren planifikazioan.

Horregatik guztiagatik, luzatu behar dira, beren horretan utzita, ekainaren 29ko 22/2021 Foru Aginduan aurreikusitako neurriak, ondoren izan dituzten aldaketa guztiak barne, zeinak judizialki baimenduta baitaude, ahalik eta gutxien kaltetzeko jardura ekonomikoa eta soziala. Bestalde, bidezkoa da horren 40. puntua aldatzea (gaueko mugikortasuna mugatzea). Mugatze hori beharrezkoa da oraindik, egoera epidemiologikoa eta asistentziala joan den astekoa bezalatsukoa delako, baina gaueko mugikortasuna mugatzeko neurriak aplikatzeko irizpidea betetzen duten udalerrien zerrenda erantsiko da. Aurreikusten da udalerrien zerrenda hori astero eguneratzea eta argitara ematea, hala Nafarroako Aldizkari Ofizialean, nola Gobernu Irekiaren Atarian, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren baimenarekin, behar diren ondorioak izan dituzten. Izan ere, metatutako intzidentziak denbora laburrean aldatzen dira, datu epidemiologikoen arabera.

Beharrezkoa da, orobat, neurriei hilabete batez eustea, gutxienez irailaren 2ra arte, metatutako kasuen kopuru handia dela-eta aurreikusten baita ospitaleratzeak handituko direla hurrengo asteetan, eta hori murriztu behar da, eraginik ez izateko ospitaleko COVID-19az kanpoko jardunaren planifikazioan, aurreko olatuetan gertatu zen bezala. Nolanahi ere, astebeteko indarraldia izanen du oinarrizko eskubideak mugatzen dituen 40. puntuko neurriak (gaueko mugikortasuna mugatzea zenbait egun eta ordutan), eta judizialki baimenduta egonen da indarrean jarraitzeko, zuzenean ukitzen baititu pertsonen oinarrizko eskubideak.

Neurri horiek guztiak Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 2. eta 3. artikuluetan xedatutakoa dute arau-oinarri, non xedatzen baita ezen osasun publikoa babesteko eta haren galera edo narriadura eragozteko, administrazio publikoetako osasun arloko agintariak, beren eskumenen esparruan, transmisio arriskuko kasuetan beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartu ahal izanen dituztela, urgentziatzeko edo premiazko osasun arrazoiek hala eskatzen dutenean.

Bestalde, hala adierazten baitu bere 26.1 artikuluan Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak, osasunerako berehalako arrisku ohiz kanpoko bat baldin badago, edo zentzuz jokaturik susmatzen bada badagoela, osasun arloko agintariak egokituz jotzen dituzten prebentzio neurriak hartuko dituzte, hala nola produktuak konfiskatu edo immobilizatzea, jarduerak bertan behera uztea, enpresak edo haien instalazioak ixtea, bitarteko materialen eta giza baliabideen interbentzioa, bai eta osasunaren ikuspuntutik justifikatuz jotzen diren beste guztiak ere.

Azkenik, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak 54.1 artikuluan

ezartzen duenez, eta galarazi gabe Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoan aurreikusitako neurriak, salbuespenez eta aparteko larritasunak edo presak agindutako egoeretan, Estatuko Administrazio Orokorrek, autonomia erkidegoetakoek eta Ceuta eta Melilla hirietakoek beharrezkoak diren neurri guztiak hartzen ahalko dituzte, zeinek bere eskumenen esparruan, legea betetzen dela ziurtatzeko. Horrez gain, 2. artikuluan ezartzen du, zehazki, agintaritzak eskudunak neurri batzuk hartzen ahalko dituela ebazpen arrazoituaren bidez, galarazi gabe Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean aurreikusitakoa; neurri horien artean aipatzen du bitarteko materialen edo giza baliabideen interbentzioa (b apartatua) eta jarduerak bertan behera uztea (d apartatua).

Beraz, bidezkoa da 22/2021 Foru Agindua luzatzea (aldaketa guztiak barne) eta aldatzea, eta mugak ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean askatasunez gauez zirkulatzeko, lehen adierazi denaren ildotik.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikulua, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesal eta antolaketakoei buruzko irailaren 18ko 3/2020 Legeak aldatutakoak, xedatzen du Justizia Auzitegi Nagusietako Administrazioarekiko Auzien Salak arduratuko direla baimen edo berrespen judiziala emateaz Estatukoak ez diren osasun agintaritzek osasun arloko legeriarekin bat hartzen dituzten neurriei, agintaritzak horiek osasun publikorako urgente eta beharrezkotzat jotzen badituzte neurri horiek, oinarritzko eskubideak mugatzea edo murriztea eragiten dutenean eta, betiere, neurrien hartzaileak banaka identifikaturik ez daudenean.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 2.2 artikuluari jarraikiz,

AGINTZEN DUT:

Lehena.—Osasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 22/2021 Foru Agindua luzatzea, baldintza berdinetan (foru agindu horren bidez berriazko prebentzio neurri apartekoak hartu ziren berriz Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz), bai eta geroago izan dituen aldaketak ere, judizialki baimendu direnak, 35. eta 40 puntuak izan ezik, aldatu egiten baitira.

Bigarrena.—Osasuneko kontseilariak ekainaren 29an emandako 22/2021 Foru Aginduaren 35. puntua aldatzea; honela idatzita geldituko da:

35.—Zezen ikuskizunak.

35.1. Zezen ikuskizunak baimenduta egonen dira, bakar-bakarrik, zezen plaza gisa gaitutako lekuetan eta zezen plaza ez-iraunkor gisa gaitutakoetan, 249/1992 Foru Dekretuaren arabera (haren bidez, zezen ikuskizunen gaineko erregelamendua onetsi zen) eta uztailaren 4ko 183/1997 Foru Dekretuaren arabera (haren bidez, zezen plaza eramangarriak baimentzeko araubidea ezarri zen), baita instalazio baliokideetan ere, baldin eta, lehenago aipatutako araudiaren babesean egon gabe ere, bermatzen badute beteko dela 35.2, 35.3 eta 35.4 puntuetan ezarritakoa.

35.2. Zezen ikuskizunak egiteko adierazitako toki guztietan memoria edo protokolo bat izan

beharko da, aplikatu beharreko araudia betetzeko baldintzak azaltzeko.

35.3. Enpresa antolatzaileak izanen du ardura, baimenean jasoriko mugak une oro betetzen direla kontrolatzeko.

35.4. Kasu guztietan, aldez aurretik esleitutako eserlekuak izanen dituzte leku horiek, eta ezin izanen da baimendutako gehieneko edukieraren ehuneko hirurogeita hamabost gainditu. Nolanahi ere, behar diren neurriak ezarriko dira instalazioetan pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun tarteak gordetzeko edo, bestela, babes fisikorako beste neurri batzuk erabiliko dira, maskara janzteak ekarriko dutenak. 800 pertsonarentzako edukiera gaindituz gero, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten nahitaezko eta loteslea beharko da.

35.5. Ez da baimentzen ezein kasutan zezen ikuskizun herrikoiak egitea, hala nola entzierroak, entzierro txikiak, basabereak libratzea edo antzekoak.

Hirugarrena.—Osasuneko kontseilariak ekainaren 29an emandako 22/2021 Foru Aginduaren 40. puntua aldatzea; honela idatzita geldituko da:

40. Pertsonak gauez zirkulatzeko duten askatasuna mugatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

40.1. COVID-19ak eragindako muturreko arrisku-egoeran dauden udalerrietan bizi diren pertsonak (intzidentzia metatua 250 kasu baino gehiagokoa denean 100.000 biztanleko 14 egunean eta 125 kasu baino gehiagokoa 7 egunean, orain Osasun Ministerioaren ekintzak koordinatzeko dokumentuan arrisku oso handia deitzen dena), 01:00etatik 06:00etara asteburuetan (larunbata eta igandea), jaiegunetan eta herriko festak egiten ziratekeen egunetan, jarduera hauek egiteko baino ezin dira mugitu Nafarroako Foru Komunitateko bideetan edo erabilera publikoko espazioetan:

- a) Sendagaiak, osasun produktuak eta premia biziko beste ondasun batzuk erostea.
- b) Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joatea.
- c) Larrialdiko arrazoiengatik albaitaritzako zentroetara joatea.
- d) Laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako edo lege arloko betebeharrak betetzea.
- e) Ohiko bizilekura itzultzea, apartatu honetan aurreikusitako jardueretako bat egin ondoren.
- f) Adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arretoa ematea eta haiek zaintzea.
- g) Gasolindegietan edo gasolina-zerbitzuguneetan depositua betetzea, aurreko paragrafoetan aurreikusitako jarduerak egiteko beharrezkoa denean.
- h) Ezinbesteko edo premiazko kasuetan.
- i) Antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatuta.

40.2. Gaueko mugikortasuna mugatzeko neurria aplikatu behar bada kontzejuak dituzten

udalerrietan, zeinetan egun desberdinetan egiten baitira herriko festak, egun horietan festak zer kontzejutan eginen ziratekeen, hartan baino ez da aplikatuko neurri hori, ez udalerriko gainerakoetan.

40.3. Astero eginen da gaueko mugikortasuna mugatzeko neurriak ukitzen dituen udalerrien zerrenda, eta argitara emanen da, hala Nafarroako Aldizkari Ofizialean, nola Gobernu Irekiaren Atarian, eta Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari igorriko zaio, judizialki baimendu dezan behar diren ondorioak izateko.

Foru aginduaren eranskinean jasota dago gaueko mugikortasuna mugatzeko neurria aplikatzeko foru agindu honetan aurreikusitako irizpideak betetzen dituzten udalerrien zerrenda, foru aginduaren 40. puntuan ezarritako moduan.

Laugarrena.–Orain luzatu eta puntualki aldatzen den uztailaren 29ko 22/2021 Foru Aginduan sartutako neurriek 2021eko uztailaren 30etik irailaren 2ra arte izanen dituzte ondorioak, bi egun horiek barne, ezertan galarazi gabe neurrietako batzuk aldatu edo kentzeko aukera, unean uneko egoera epidemiologikoaren arabera, salbu eta foru agindu honen 40. puntuko lehendabiziko apartatua (gaueko mugikortasuna mugatzea), ondorioak izanen baititu 2021eko abuztuaren 5a arte, egun hori barne.

Bosgarrena.–Foru agindu hau Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Aholkularitza Juridikora igortzea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak foru aginduari baimen judiziala emateko behar den tramitazioa egin dezan; igortzea, halaber, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko kudeatzaileari, Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusira, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzara, Barne Zuzendaritza Nagusira, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusira, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusira, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusira, Nafarroako Kirolaren Institutura, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziora, Osasun Zuzendaritza Nagusira eta Osasun Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira.

Seigarrena.–Foru agindu honek 2021eko uztailaren 30ean hartuko du indarra, 00:00etan.

Iruñean, 2021eko uztailaren 27an.–Osasuneko kontseilaria, Santos Induráin Orduna.

ERANSKINA

COVID-19ak eragindako muturreko arrisku-egoeran dauden udalerrien zerrenda, uztailaren 26an eguneratua

Ver tabla completaVer tabla completa

UDALERRIA	INTZIDENTZIA METATUA 14 EGUNERAKO	INTZIDENTZIA METATUA 7 EGUNERAKO
------------------	--	---

Abartzuza	2230,48	2230,48
Aberin	557,1	278,55
Adios	1290,32	645,16
Allin	344,03	229,35
Allo	929,75	516,52
Altsasu	429,93	174,66
Antzin	1186,94	1186,94
Andosilla	546,84	401,02
Antsoain	913,87	443,09
Agoitz	1558,44	816,32
Arakil	1714,89	1071,81
Aranguren	1068,23	405,19
Arano	862,06	862,06
Arantza	4690,11	670,01
Artzibar	1526,71	1145,03
Areso	3942,65	1433,69
Arroitz	1332,06	951,47
Artaxoa	716,41	238,8
Atetz	930,23	930,23
Auritz	865,8	432,9
Aiegi	1310,22	887,57
Azagra	442,36	312,25
Azuelo	12903,22	12903,22
Barañain	915,88	410,91
Barasoain	805,15	805,15

Basaburua	599,52	239,8
Baztan	835,79	347,17
Beintza-Labaien	454,54	454,54
Bera	3426,12	856,53
Berbintzana	1068,7	763,35
Beriain	1179,65	614,4
Berriobeiti	854,46	344,54
Berriozar	1083,82	556,3
Bertizarana	653,59	326,79
Bidaurreta	613,49	613,49
Buñuel	721,04	630,91
Burlata	1021,15	429,4
Cadreita	1527,49	916,49
Caparroso	867,67	216,91
Cárcar	1122,54	467,72
Zarrakaztelu	521,04	360,72
Cascante	621,11	388,19
Kaseda	924,02	718,68
Castejón	408,35	192,16
Oltza Zendea	764,6	273,07
Cintruénigo	1214,72	430,21
Zirauki	410,67	410,67
Zizur	1208,84	411,52
Corella	1580,73	552
Cortes	571,24	158,67

Donamaria	1154,73	461,89
Doneztebe	2259,55	637,31
Elgorriaga	1363,63	909,09
Eneritz	1048,95	699,3
Eratsun	662,25	662,25
Ergoiena	1881,72	1612,9
Erro	1250	375
Eslaba	900,9	900,9
Lizarra	1317,88	847,21
Esteribar	629,16	370,09
Etxalar	4182,04	738
Etxarri Aranatz	281,91	201,36
Etxauri	769,23	461,53
Ezkabarte	609,41	221,6
Faltzes	1252,69	604,75
Galar	1143,86	527,93
Galipentzu	1020,4	1020,4
Goizueta	1988,63	852,27
Uharte	1112,51	436,55
Igantzi	6572,76	312,98
Iguzkitza	923,07	615,38
Irurtzun	985,22	671,74
Ituren	3326,81	1761,25
Itza	647,77	404,85
Itzagaondoa	1704,54	568,18

Txulapain	1243,33	355,23
Lakuntza	390,93	312,74
Lantz	3378,37	675,67
Leitza	1613,45	274,63
Lekunberri	1888,02	130,2
Lerin	289,85	173,91
Lesaka	10178,76	1751,18
Ledea	2054,79	684,93
Lodosa	436,04	352,99
Longida	1006,71	671,14
Los Arcos	2028,21	1058,2
Irunberri	531,1	151,74
Mañeru	460,82	230,41
Martzilla	419,87	174,94
Mélida	272,85	272,85
Mendabia	986,74	451,08
Mendigorria	552,48	276,24
Milagro	2049,18	848,94
Miranda Arga	595,94	357,56
Murillo el Cuende	902,25	902,25
Muruzabal	858,36	429,18
Nabaskoze	757,57	757,57
Noain (Elortzibar)	901,44	552,88
Obanos	1176,47	641,71
Otsagabia	383,87	383,87

Odieta	1381,21	276,24
Oiz	2325,58	775,19
Orkoien	764,11	271,13
Oteitza	435,72	326,79
Iruña	1008,66	466,14
Azkoién	933,31	509,07
Gares	563,38	176,05
Puiu	284,9	284,9
Ribaforada	480	133,33
Erromantzatua	1714,28	1714,28
Saldias	3278,68	2459,01
San Adrián	540,36	301,97
Zangoza	1229,34	483,67
Sunbilla	888,88	444,44
Tafalla	481,35	292,59
Tutera	590,21	325,44
Uharte Arakil	993,78	496,89
Ultzama	1330,91	302,48
Untzitibar	947,86	947,86
Urdazubi	859,59	573,06
Urraulbeiti	931,67	931,67
Urroz	6010,92	4371,58
Uterga	1960,78	1960,78
Eguesibar	866,14	449,64
Deierri	929,61	664,01

Valtierra	1036,48	373,13
Viana	403,89	261,34
Alesbes	1299,61	737,61
Villamayor de Monjardín	4201,68	4201,68
Villatuerta	671,7	419,81
Atarrabia	784	372,4
Ziordia	1149,42	574,71
Zizur Nagusia	1275,68	584,12
Zubieta	1980,19	990,09
Zugarramurdi	913,24	456,62

Iragarkiaren kodea: F2111698